5. La disminución en el número de los componentes del Consejo de Administración sólo podrá ser acordada por la Junta General con motivo de vacante o de finalización del plazo para el que fue nombrado el Consejero cuya plaza se amortiza.

*Artículo 16.*— Reuniones del Consejo de Administración.

1. El Consejo de Administración será convocado por su Presidente cuando lo considere oportuno, y al menos una vez por mes.

Deberá hacerlo, así mismo, cuando lo soliciten por escrito un tercio de los Consejeros, o la Comisión Ejecutiva, a través de su Presidente o el Director General, en cualquier caso dentro de los quince días naturales siguientes al ejercicio de esta petición.

2. En toda convocatoria del Consejo de Administración se acompañará el Orden del Día de los asuntos que han de ser tratados, y deberá realizarse con una antelación mínima de cuarenta y ocho horas al momento de iniciarse la reunión del Consejo.

3. El Consejo de Administración se entenderá convocado y constituido para tratar cualquier asunto siempre que, presentes todos sus miembros, acuerden por unanimidad la celebración del Consejo.

No podrá ningún administrador intervenir en representación de otro para tomar el acuerdo a que se refiere el párrafo anterior, salvo que el apoderamiento de que habla el artículo 17 facultare expresamente al representante para ello.

4. Salvo lo previsto en el número anterior, el Consejo de Administración sólo podrá deliberar sobre las cuestiones reflejadas en el Orden del Día previamente enviado.

*Artículo 17.*— Asistencia al Consejo.

1. Podrán asistir a las reuniones del Consejo, con voz y voto, todos quienes ostenten la condición de Consejeros en ese momento.

2. Para que el Consejo quede válidamente constituido, será precisa la asistencia, presentes o representados, de la mitad más uno de sus miembros, salvo lo previsto en el artículo 16,3 de estos Estatutos.

En el caso de que el número de miembros del Consejo fuere impar, bastará para su válida constitución que el número de los Consejeros presentes o representados supere al de ausentes o no representados.

3. Todo Consejero podrá asumir la representación de uno solo de los demás Consejeros, ausente o imposibilitado, mediante apoderamiento por escrito para cada reunión.

Para que el representante pueda acordar válidamente la reunión extraordinaria del Consejo prevista en el número 3 del artículo 16 de estos Estatutos, será preciso que el apoderamiento se extienda de forma expresa a esa facultad.

4. El Consejo de Administración podrá establecer con carácter general las garantías, formalidades o requisitos que estime oportunos, en relación con los documentos que acrediten el apoderamiento efectuado por un administrador a otro para intervenir en las reuniones del Consejo.

5. Kontseiluburuak bazkide ez direnak Kontseiluaren bileretara, hizpidea bai baina hautespiderik gabe, bertaratzeko baimena eman dezake.

Aipatutako lagun horiei Eguneko Aztergai-Zerrendako puntu jakin bat azaltzeko deituko balitzaie, delako puntua aztertzea besterik ez dute egingo bileran.

6. Erabakitakoaren erroldaratze eta grabaketalanetan laguntzeko beste lagun batzuren lankidetzarako baimena eman ahal izango du Kontseiluburuak, bai eta lagun horiek Kontseiluaren bilera egiten ari dadin egoitzan egotekoa ere.

*18. atala.*— Kontseiluaren eztabaidak.

1. Kontseiluburuak, kanpoan denean edo bertaratu ezin duenean Kontseiluburu ordeak nahiz, hori ezean, Kontseilukide edadetuenak ordezkaturik, ordezkatze-ahalduntzak aztertu eta sailkatuko ditu, bilerara bertaratzeko zerrenda zehaztuko du, eztabaidak antolatu eta zuzenduko ditu, bildutakoei hizpidea eman eta kenduko die eta botu-emanketak prestatu eta zuzenduko ditu.

2. Kontseiluaren erabakiak bertaratutakoen gehiengo osoz hartuko dira, Legeak eta Estatutu hauek beste moduren bat ezartzen ez badute behintzat.

3. Botu-zenbaketetan berdinketa aterako balitz, Kontseiluburuak emango luke botu ebazlea.

4. Idazkariak gordeko ditu, kontseiluburuak kasuan kasu erabaki ditzan langile eta baliabideen laguntzarekin, Kontseiluaren bileretako Agiriak.

Idazkaria kanpoan izan edo bilerara bertaratu ezin denean, Kontseilukide gazteenak ordezkatuko du.

*19. atala.*— Administrazio Kontseiluaren eginkizunak.

1. Honako hauek dira Administrazio Kontseiluaren eginkizunak:

a) Estatutu hauen bitartez berariz ematen zaizkienak.

b) Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betetzea.

c) Baltzuaren erabateko ordezkaritza, ekintza eta hitzarmen mota guztietan.

d) Baltzuko maila guztietako langileak izendatu, akuratu eta kentzea, horien eskubideak eta betebeharrak zehaztea, edozein arrazoirengatik Baltzuko langilegoari egin beharreko ordainketak finkatzea, eta aipatu langilegoaren hautaketa eta ordainketarako erizpideak jartzea.

e) Baltzuaren iharduna antolatu, zuzendu eta ikuskatzea, eta Batzar Nagusisiari barne-araudia proposatzea, enpresaren iharduerek hala eskatzen badute.

f) Baltzuaren helburuak lortzeko beharrezko edo komenigarri izan daitezen ekintza eta hitzarmenak burutzea, eta Baltzuaren helburuekin zerikusirik duten lege-harremanetako negozio eta eragiketa propioak aurrera eramatea.

g) Baltzuarentzat komenigarri izan daitezen kreditu eta mailegu-eragiketak egitea, eta bermeak eta fidantzak ematea.

h) Baltzuaren aurrekontuak eta egitarauak prestatzea, dagozkion baimenen eta ikuskapenen kaltetan gabe.

5. El Presidente del Consejo podrá autorizar la presencia en las reuniones del mismo de personas que no sean socios, con voz pero sin voto.

Si las citadas personas fueran llamadas para informar de un punto concreto del Orden del Día, su presencia en la reunión se limitará a la discusión del mismo.

6. Al solo efecto de realizar tareas auxiliares de registro o grabación de lo tratado, el Presidente del Consejo podrá autorizar la colaboración de otras personas y la permanencia de las mismas en el recinto en que se esté realizando la reunión del Consejo.

*Artículo 18.*— Deliberaciones del Consejo.

1. El Presidente del Consejo, sustituido en caso de ausencia o imposibilidad por el Vicepresidente o, en su defecto, por el Consejero de mayor edad, examina y clasifica los apoderamientos de representación, establece la lista de asistencia a la reunión, ordena y dirige los debates, concede o retira la palabra a los reunidos con derecho a ella y dispone y preside las votaciones.

2. Las decisiones del Consejo se adoptarán por mayoría absoluta de los asistentes, salvo que se exija otra diferente por la Ley o en estos Estatutos.

3. En caso de empate en el escrutinio, el Presidente del Consejo dispone de voto de calidad.

4. Las Actas de cada reunión del Consejo estarán al cuidado del Secretario, auxiliado, en su caso, por el personal y medios que disponga el Presidente.

En caso de ausencia o imposibilidad del Secretario, éste será sustituido por el Consejero de menor edad.

*Artículo 19.*— Atribuciones del Consejo.

1. Serán atribuciones del Consejo de Administración:

a) Las que los presentes Estatutos le otorguen expresamente.

b) la ejecución de los acuerdos de la Junta General.

c) La representación plena de la Sociedad en toda clase de actos y contratos.

d) El nombramiento, contratación y separación del personal de todas clases al servicio de la Sociedad, y la fijación de sus derechos y obligaciones, así como de las remuneraciones que, por cualquier causa, hubieran de abonarse al mismo, la plantilla de personal de la Sociedad, y la fijación de los criterios para la selección y retribución del mismo.

e) Organizar, dirigir e inspeccionar la marcha de la Sociedad y proponer a la Junta General el reglamento de régimen interior, si las actividades de la empresa llegaran a requerirlo.

f) Efectuar los actos y celebrar los contratos que sean necesarios o convenientes para la realización del objeto social, y llevar a cabo toda clase de negocios y operaciones propias del tráfico jurídico y relacionados con el objeto de la Sociedad.

g) Acordar operaciones de crédito y préstamo que puedan convenir a la Sociedad, así como prestar avales y fianzas.

h) Elaborar los presupuestos y programas de la Sociedad, sin perjuicio de las autorizaciones y fiscalizaciones que puedan corresponder.

i) Ohizko Batzar Nagusiari urtero kontuak, balantzeak, baltzuaren ekitaldian egindako kudeaketaren azalpen-txostena eta indarrean dagoen araubideak eska ditzan gainerako agiri guztiak aurkeztea.

j) Baltzuari dagozkion eskubideei edo ekintzei buruz egoki deritzon erabakia hartzea edozein motatako bulegoetan: publikoetan zein pribatuetan, estatukoetan nahiz autonomietakoetan, antolakuntzetan, Epaitegietan, Ohizko nahiz Ohiz Kanpoko Auzitegietan, Auzitegi Gorena eta Konstituzio-Auzitegia barne direla. Halaber, murtziloak edo ohizko nahiz ohiz kanpoko errekurtsoak egitea, legelariei eta eskuordeei auzitarako ahalmen orokorrak edo bereziak ematea, egoki eritzitako eran eta Epaibidezko Legeetan jasotako eskubide guztiekin, auzigaietan sendesteko eskubidea, jarrera askestekoa eta errekurtsoetan (baliogabetzeko badira ere) atzera egitekoa barne.

k) Baltzuaren arazoei buruz ezarritako zuzenbide pribatuaren alorreko edozein ebazpen-bidetatiko erdibidezko antolapenak eta hitzarmenak egitea.

l) Baltzuko baltzak eta ondasunak erabili ahal izatea eta baltzuaren intereserako bidezko eta komenigarri diren tokietatik erreklamatzea, jasotzea eta kobratzea; gordailuak eratu eta baliogabetzea, bankuetako, kredituetako nahiz beste edozein moetetako kontu korronteak ireki, mugitu eta istea, dirua edo balioak ateratzea, estatuko nahiz atzerriko bankuetxeekin —banka ofiziala barne— banku-eragiketa guztiak egitea, Baltzuaren diruak erabili ahal izatea, dirupaperak eta merkataritzako diru-agiriak igorri, ordainez eman, bermatu, onartu, negoziatu, protesta egin eta, azken batean, inolako mugapenik gabe banku eta merkataritza-salerosketaren berezko eragiketa guztiak egitea.

m) Pertsona jakin batzuri egoki derizkion bezainbesteko ahalmenak ematea, betebeharreko zeregina betzeko eta baltzuaren interesak hobeto babesteko, Legean eta Estatutu hauetan ezarritako mugapenak kontutan harturik.

2. Aurreko zerrenda adierazpen hutsekoa da eta ez ditu inolaz ere mugatzen Administrazio Kontseiluak Baltzuaren negozioak eta interesak agintzeko, zuzentzeko eta administratzeko Administrazio Kontseiluak dituen eskubide zabalak, Akziodunen Batzar Nagusiari bereziki ez badagokio behintzat.

3. Kontseiluburuak, kontseilukide izateagatik dagozkion eskubideez eta Legeak nahiz Estatutu hauek emandakoez gain, Administrazio Kontseiluaren eta gainerako administraritza-organuen erabakiak bete araziko ditu, eta Baltzua ordezkatuko du Batzar Nagusian eta Administrazio Kontseiluan hartutako erabakien ondoriozko ekintza eta hitzarmen guztietan.

Baltzua ordezkatuko du, halaber, gerta daitezen auzi, espediente eta administraritza, gobernu, epaibidezko edo epaibidez kanpoko arazo guztietan, bai auzitaratzaile gisa, bai auzitaratu gisa nahiz beste edozein eratara.

*20. atala.*— Egiteratze Batzordea.

1. Administrazio Kontseiluak, edozein unetan, Egiteratze Batzordea osatzeko kideak izendatu ahal izango ditu Administrazio Kontseiluko kideen artetik. Kide-kopuruak bakoitia izan beharko du, eta inoiz ez du administratzaileen herena baino kide gehiagok osatuko Kontseilua.

i) Presentar anualmente a la Junta General Ordinaria las cuentas, balances, memoria explicativa de la gestión durante el ejercicio social, y cuantos otros documentos sean exigidos por la normativa aplicable.

j) Acordar lo que juzgue conveniente sobre el ejercicio de los derechos o acciones que a la Sociedad correspondan, ante todo tipo de oficinas públicas o privadas, estatales, autonómicas, Administraciones Territoriales o Institucionales, organismos, Juzgados y Tribunales Ordinarios y Especiales, incluso el Tribunal Supremo y el Tribunal Constitucional, así como respecto a la interposición de reclamaciones o recursos ordinarios y extraordinarios, y otorgar poderes generales o especiales para pleitos en favor de letrados y procuradores, en la forma que estime conveniente, y con las más amplias facultades contenidas en las Leyes Procesales, incluso las de ratificación en querellas, absolución de posición y desistimiento de recursos, incluso el de casación.

k) Transigir y comprometer los asuntos de la Sociedad en arbitraje de derecho privado bajo cualquiera de las modalidades establecidas.

l) Disponer de los fondos y bienes sociales, reclamarlos, percibirlos y cobrarlos de donde proceda y convenga a los intereses sociales: constituir y cancelar depósitos, establecer, movilizar y cerrar cuentas corrientes bancarias, de crédito o de cualquier otra índole, retirar metálico o valores en general, realizar toda clase de operaciones bancarias con entidades nacionales o extranjeras, incluso la banca oficial, disponer de los fondos de la Sociedad, librar, endosar, avalar, aceptar, negociar, protestar y pagar letras de cambio y efectos de comercio, y realizar, en suma, todas las operaciones propias del tráfico bancario y mercantil sin limitación alguna.

m) Conferir poderes a personas determinadas tan amplios como estime convenientes para la misión que tengan que cumplir y para la mejor defensa de los intereses sociales, dentro de los límites establecidos por la Ley y los presentes Estatutos.

2. La precedente relación es meramente enunciativa y no limita, en manera alguna, las amplias facultades de que goza el Consejo de Administración para gobernar, dirigir y administrar los negocios e intereses de la Sociedad en cuanto no esté especialmente reservado a la competencia de la Junta General de Accionistas.

3. El Presidente del Consejo, además de las facultades que le correspondan como Consejero, y las que le están atribuidas por la Ley o por estos Estatutos, llevará a cabo la ejecución de los acuerdos del Consejo de Administración y de los demás órganos administrativos colegiados, y representará a la Sociedad en la celebración de cuantos actos y contratos deriven de los acuerdos adoptados en Junta General y en Consejo de Administración.

Igualmente representará a la Sociedad en cuantos litigios, expedientes, cuestiones administrativas, gubernativas, judiciales o extrajudiciales se presenten, tanto como demandante o como demandado o con cualquier otro carácter.

*Artículo 20.*— Comisión Ejecutiva.

1. El Consejo de Administración podrá, en cualquier momento, designar de entre los miembros del Consejo de Administración a los componentes de una Comisión Ejecutiva, en número impar, no superior, en ningún caso, al tercio del de los administradores.

2. Egiteratze Batzordeburu, buruorde eta idazkari Administrazio Kontseiluko kideak izango dira, beti ere Egiteratze Batzordean partehartzeko izendatuak izanez gero. Bestelakoetan, Administrazio Kontseiluak Egiteratze Kontseiluko kideen artean egingo ditu izendapenak eta buruordea izendatu gabe utzi ahal izango du.

3. Administrazio Kontseiluaren eta Egiteratze Batzordearen berdintasunak direla eta lehenengoaren funtzionamendu, osaketa eta erabakiak hartzeko jaurpidea araupetzen duten arauak ezarri ahal izango zaizkio Egiteratze Batzordeari.

Egiteratze Batzordearen erabakiak onar daitezen nahikoa izango da bere kideen gehiengoaren aldeko botua.

Egiteratze Batzordeburuak, buruordeak eta hala balegokio, idazkariak Batzordearen Aginpide esparru barruan, Administrazio Kontseiluko kargu horiexen eginkizunen antzekoak izango dituzte. Halaber, kargua hutsik gertatuz gero edo betetzeko eragozpen bat sortuz gero, ordezkotzarako arau berak izango dituzte.

4. Administrazio Kontseiluak Egiteratze Batzordeko kideei ordezkotzan eman diezazkieketen eskubide eta aginpideak Administrazio Kontseiluaren esku daudenen artean ordezkotza onar dezatenak izango dira. Administrazio Kontseiluak zehaztuko du horrela emandako eskurantzen irispidea eta izaera, kidetasunez edo elkarturik ihardun behar den erabakiko duelarik, ordezkotza horren iraupena; aurkakorik esaten ez bada, Kontseiluaren Eginkizunen epealdi osoa hartzen duela ulertuko da.

5. Egiteratze Batzorderik baldin badago, Administrazio Kontseiluak ez du Estatutu hauetako 16. atalaren azken oharrean ezarritako maiztasunarekin bildu beharrik izango.

*21. atala.*— Kontseilukideen lansariak.

Batzar Nagusiak erabaki ahal izango ditu urtealdi bakoitzerako Kontseilukideen lansariak.

Hirugarren Sekzioa

ZUZENDARI NAGUSIA

*22. atala.*—

Administrazio Kontseiluak bere kideen artean Zuzendari Nagusia izendatu ahal izango du.

*23. atala.*— Eskuduntzak.

Zuzendari Nagusiaren ahalmenak Administrazio Kontseiluak balioz eta berariz emandakoak izango dira eta honek, egoki deritzonean, indargabetu edo aldatu ahal izango ditu.

*24. atala.*—

1. Mugarik gabea izango da Zuzendari Nagusiaren agintealdia, eta Administrazio Kontseiluaren eskutan egongo da izendapena ezeztatzea.

2. Kideen gehiengo osoaren aldeko botuz hartuko dira Sail honetan aipatzen diren Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

2. Serán Presidente, Vicepresidente y Secretario de la Comisión Ejecutiva los que lo sean del Consejo de Administración, siempre que fueren designados para formar parte de la primera. En otro supuesto, El Consejo de Administración proveerá a los nombramientos respectivos de entre los miembros de la Comisión Ejecutiva, pudiendo prescindir de nombrar Vicepresidente.

3. Serán aplicables por analogía a la Comisión Ejecutiva las normas que regulen el funcionamiento, constitución y régimen de adopción de acuerdos en el Consejo de Administración.

Bastará el voto favorable de la mayoría de los miembros de la Comisión Ejecutiva para sus acuerdos.

El Presidente, Vicepresidente, en su caso, y el Secretario de la Comisión Ejecutiva tendrán similares funciones a las señaladas para los órganos de la misma denominación en el Consejo de Administración, dentro del ámbito de las competencias que se señalen para la Comisión, y se sujetarán a las normas establecidas para esos cargos en cuanto a sustitución en caso de vacante o impedimento.

4. Las facultades y competencias que el Consejo de Administración podrá delegar en los componentes de la Comisión Ejecutiva serán las que, dentro de las atribuidas al Consejo de Administración, admitan delegación. El Consejo de Administración determinará el alcance concreto y la modalidad de ejercicio de las atribuciones así delegadas, estableciendo si han de ser actuadas en forma solidaria o mancomunada, y el plazo de duración de esta delegación que, de no expresarse otra cosa en contrario, se entenderá abarca todo el plazo de duración de las funciones de Consejo.

5. En el supuesto de existencia de la Comisión Ejecutiva el Consejo de Administración podrá no reunirse con la frecuencia establecida en el último inciso del artículo 16 de los presentes Estatutos.

*Artículo 21.*— Retribución de los miembros del Consejo.

La retribución de los miembros del Consejo podrá ser determinada, en su caso, por la Junta General para cada ejercicio.

Sección Tercera

DEL DIRECTOR GENERAL

*Artículo 22.*—

El Consejo de Administración podrá designar, de entre sus miembros, un Director General.

*Artículo 23.*— Competencias.

Las facultades del Director General serán las que en forma expresa sean atribuidas válidamente por el Consejo de Administración, la cual podrá, en cualquier momento, revocarlas o modificarlas.

*Artículo 24.*—

1. La duración del mandato del Director General será indefinida, sujeta a revocación del nombramiento por el Consejo de Administración.

2. Los acuerdos del Consejo de Administración a que se refiere la presente Sección serán tomados con el voto favorable de la mayoría absoluta de sus miembros.

## IV IDAZPURUA

### AKZIOKAKO BALTZUAREN EKONOMI JAURBIDEA

*25. atala.*— Ekonomi aldia.

Urtarrilaren 1ean hasi eta hurrengo abenduaren 31n amaitzen da da Baltzuaren ekonomi aldia.

Hala ere, lehenengo aldia Akziokako Baltzua eratzen den egunean hasiko da.

*26. atala.*— Ekonomi eta Kontabilitate-agiriak.

1. Legeak edo Batzar Nagusiak ezarritako liburu, erregistro, egitarau eta ekonomi, aurrekontu eta kontabilitate-agiriak egiteratzeaz eta zertzeaz Administrazio Kontseilua arduratuko da.

2. Aurreko zenbakian ohartemandakoaz gain, beren egoera berezia dela eta, administrazio agiriren bat betetzea ezinbestekoa izan dezaten akziodunek ere baldintza hori bete beharko dute.

*27. atala.*— Kontu-ikuskaketa.

Batzar Nagusiak erabaki ahal izango du Baltzuko kontuak kanpokoa den pertsonaren edo erakunde espezialistaren batek aztertu eta ikuskatzea. Hauen txostena, kontuekin batera, Kontseiluari heleraziko zaio bere onespenerako.

Aurreko idazatian adierazitakoaz gain arlo honetan dauden legezko betebeharrak ere kontutan hartu beharko dira.

*28. atala.*— Irabazien banaketa.

Baltzuko ekonomi karga eta gastuak kitatu eta legezko eta gogozko gordekizunei erantzun ondoren irabazi garbirik geratuko balitz, Batzar Nagusiak erabakiko du diru hauen zertarakoa, Baltzuaren helburuak kontutan izango dituelarik.

## V IDAZPURUA

### BALTZUAREN DESEGITEAZ ETA KITAPENAZ

*29. atala.*— Desegitearen arrazoiak.

Akziokako Baltzuei buruzko Legean jasotako arrazoiengatik desegingo da Baltzua.

*30. atala.*— Kitatzaileak.

1. Arrazoiren batentengatik kitatzaileak izendatu beharko balira, Batzar Nagusiak besterik erabaki ezean, Egiteratze Batzordeko kideek, eta horien ezean, Administrazio Kontseiluko kideek, hartuko dute bere gain kitatzaile zeregina.

2. Aurreko idazatian aipatzen den unean, dagokion organueko kide-kopurua bikoitia balitz, administratzaileetan gazteenak ez du kitatzaile-lanik egingo.

*31. atala.*— Ihardunbidea.

Estatutu hauetan berariz ohartematen ez den orotan, Legeak ohartematen duenarekin bat jokatuko da Baltzua deuseztatzeko eta kitapena egiteko.

## TITULO IV

### DEL REGIMEN ECONOMICO DE LA SOCIEDAD

*Artículo 25.*— Duración del ejercicio.

El ejercicio social se inicia el día uno de Enero de cada año y termina el treinta y uno de Diciembre siguiente.

Por excepción, el primer ejercicio dará comienzo en la fecha de constitución de la Sociedad Anónima.

*Artículo 26.*— Documentos económicos y contables.

1. El Consejo de Administración se responsabilizará de la llevanza y formalización de cuantos libros, registros, programas y documentos económicos, presupuestarios y contables se establezcan con carácter obligatorio en la Ley, o señale la Junta General.

2. Con independencia de lo prevenido en el número anterior, los accionistas que por su condición subjetiva específica estén obligados a cumnplimentar una determinada documentación administrativa deberán llenar este requisito.

*Artículo 27.*— Censura de cuentas.

La Junta General podrá disponer que las cuentas de la Sociedad sean examinadas y censuradas por medio de personas o entidades especializadas ajenas a la Sociedad, cuyo informe será elevado, junto con las cuentas, a la aprobación de la Junta.

Lo establecido en el párrafo anterior se entiende sin perjuicio de las obligaciones legales que existan en la materia.

*Artículo 28.*— Distribución de beneficios.

En el supuesto de existencia de beneficios líquidos de la Sociedad, después de atender a las cargas y gastos sociales y a las reservas legales y voluntarias, su importe será destinado a los fines que acuerde la Junta General atendiendo, en todo caso, al objeto social de la misma.

## TITULO V

### DE LA DISOLUCION Y LIQUIDACION DE LA SOCIEDAD

*Artículo 29.*— Causas de disolución.

La Sociedad se disolverá por las causas establecidas en la Ley de Sociedades anónimas.

*Artículo 30.*— Liquidadores.

1. Si por cualquier causa hubieran de ser nombrados liquidadores, asumirán estas funciones, salvo que la Junta General dispusiera otra cosa, los componentes de la Comisión Ejecutiva o, en su defecto, los del Consejo de Administración.

2. si el número de miembros del órgano correspondiente fuere par en el momento señalado en el número anterior, el administrador de menor edad no asumirá funciones de liquidador.

*Artículo 31.*— Procedimiento.

En todo lo no previsto expresamente en estos Estatutos, regirá para la disolución y liquidación de la Sociedad lo establecido en la Ley.

VI IDAZPURUA

ESTATUTUEI MEN EGITEA ETA AUZIAK

*32. atala.*— Estatutuei men egitea.

Akzio bakar bat hartzeak berarekin dakar akziodunak Estatutuotan ohartemandakoari eta Baltzuko organuek behar-bezala hartutako akordio eta erabakiei men osoa egitea, akziodunak aurka egiteko eta alde egiteko dituen eskubideen kaltetan gabe.

*33. atala.*— Artekaritza klausula

Estatutuok ulertu, egiteratu eta praktikan jartzea, edo Baltzu-organuen akordio eta erabakiak direla-eta, akziodun baten edo batzuren eta Baltzuaren edo Baltzuko edozein organuen artean gerta dadin bat ez etortze oro, Legeak izapide berezirik ezartzen ez badio bahintzat, berdintasun artekaritzaz ebatsiko da. Baltzu hori kokatua dagoen tokiko Merkataritza, Gintza eta Itsasketa Etxeko Lehendakaria izango da artekari. Hautsimautsia gauzatzeko eta ebazteko behar diren guztiak egin beharko dituzte akziodun guztiek, eta auzitegietara jotzeari beren berengi uko egin.

TITULO VI

SUMISION A LOS ESTATUTOS Y CONFLICTOS

*Artículo 32.*— Sumisión a los Estatutos.

La suscripción de una sola acción implica la sumisión total del accionista a las prevenciones de los presentes Estatutos, y a los acuerdos y decisiones que válidamente adopten los órganos de la Sociedad, sin perjuicio de los derechos de impugnación y separación del accionista.

*Artículo 33.*— Cláusula de arbitraje.

Toda diferencia que surja entre uno o varios accionistas y la Sociedad o cualesquiera de sus órganos en cuanto a la interpretación, ejecución y puesta en práctica de los presentes Estatutos o derivada de acuerdos y decisiones de los órganos sociales, será sometida, salvo que tenga establecida en la Ley un trámite específico, a arbitraje de equidad, a cargo del Presidente de la Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación del domicilio social de la Sociedad, obligándose a todos los accionistas a realizar los trámites precisos para la formalización del compromiso y la emisión del laudo, con expresa renuncia al ejercicio de la acción ante los tribunales.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak
## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

**BARNE SAILA**

**359**

AGINDUA, 1990.eko urtarrilaren 11koa, Barne Sailarena, , Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintzaren Inspektore bezala destino berri bat esleitzeko dena.

Ertzaintzaren Zuzendari Nagusiaren 1988.eko azaroaren 14eko (abenduaren 27ko EHAAko 242. zk.) Erabakiko edukinaren arabera, gero 1989.eko irailaren 25eko Erabakiz (azaroaren 17ko EHAAko 217. zk.) aldatu izan zena hori, eta egin diren eskabideak ikusita, honako hau

ERABAKI DUT:

*Lehenengoa.*— Ertzaintzaren Inspektore den , 1988.eko urtarrilaren 18ko Aginduan (otsailaren 2ko EHAAko 21. zk.) zehaztuta datorren honako lanpostua esleitzea: Kodea, 006.— Unitatea: Joko unitatea.— Herria: Bilbo.— Kargua: 1. mailako arduraduna.— Enplegua: Inspektore.— Espezialitatea: espezialitaterik gabea.— Sailkapena: merezimendu lehiaketa.

*Bigarrena:* Honen bidez egiten den esleipenak, Barne Sailburuaren 1989.eko otsailaren 9ko Aginduz (otsailaren 24eko EHAAko 38. zk.) jaunari egin zitzaion lanpostu esleipena aldatzen du.

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

**359**

ORDEN de 11 de Enero de 1990, del Consejero de Interior, por la que se procede una nueva adjudicación de destino como Inspector del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco a

A tenor del contenido de la Resolución del Director General de Policía de 14 de Noviembre de 1988 (B.O.P.V. n.º 242, de 27 de Diciembre) modificada por la de 25 de Septiembre de 1989 (B.O.P.V. n.º 217, de 17 de Noviembre) y a la vista de las solicitudes que han sido cursadas.

RESUELVO:

*Primero.*— Adjudicar al inspector del Cuerpo de Policía la siguiente plaza identificada en la Orden de 18 de Enero de 1988 (B.O.P.V. n.º 21, de 2 de Febrero): Código 006.— Unidad: Unidad de Juego.— Localidad: Bilbao.— Cargo: Responsable 1er nivel.— Empleo: Inspector.— Especialidad: sin especialidad.— Calificación: Concurso de méritos.

*Segundo:* La adjudicación que se efectúa por la presente modifica la asignación de plaza operada a por la Orden de este Consejero de Interior de 9 de Febrero de 1989 (B.O.P.V. n.º 38, de 24 de Febrero).